

bidegileak



Jon Andoni Irazusta (1884-1952)

Egilea:

JOXEMARI ITURRALDE

Sarrera

Euskal Literaturgintza dela-eta, Gipuzkoako Tolosa herriak aro oso emankorra ezagutu zuen XX. mendean, 1920. urtetik 1936. urtera arte. Gero, jakina, gerra zibilak giro bikain hura erabat apurtu eta desegin zuen. Gerra zibilaren ostean idazle haietatik batzuek berriro ekin zioten lanari, bai Tolosan bertan nola erbestean, eta egia da baita ere beste batzuk ordurako hil egin zirela edo hil egin zituztela. Baina ezin da inolaz ere ukatu 1936a baino lehenagoko urte haiek balio izan zutela idazle handiz osaturiko talde edo belaunaldi moduko bat, bikaina eta aparta, osatzeko: Tolosako Eskola.



Jon Andoni Irazusta (1884-1952)


Nahiz eta denak ez ziren adin berekoak, izan zuten ezaugarri bat baino gehiago taldea osatzeko balio izan ziena. Denak bizi ziren Tolosan eta denak ziren Tolosan jaioak (bi izan ezik). Denak ziren euskaldunak eta euskaltzaleak, eta denak, baita ere, literaturzaleak. Gainera pertsona oso erlijiosoak izan ziren eta ia denak jeltkideak. Eta hau guztia gutxi balitz, elkarrekiko laguntasun eta adiskidantza handia mantendu zuten urte haietan.

Tolosako eskola

Hauexek dira talde hau osatu zuten idazle tolosarrak: Xabier Lizardi, Jon Andoni Irazusta, Orixe, Antonio M^a Labaien, Jose Eizagirre, Ixaka Lopez-Mendizabal, Aitzol, Emeterio Arrese.

Lizardi (Zarautzen jaio baina txikitan Tolosara etorria), Antonio M^a Labaien eta Orixe (Orexan jaioa baina Tolosan egon ohi zena) oso lagun minak izan ziren eta baita Jon Andoni Irazusta, Labaien, Lopez-Mendizabal eta Eizagirre ere.

Gerra zibila piztu zenarekin batera apurtu zen giro emankor hau. Denek alde egin behar izan zuten erbestera. Lizardi hiru urte lehenago hil zen gaixotasun latz batek jota eta Aitzol asasinatu egin zuten Hernanin gerra zibila hasi eta berehala. Besteentzat, etxetik alde egin beharra. Jon Andoni Irazusta, Orixe, Lopez-Mendizabal Ameriketara joan ziren. Labaien eta Eizagirre Iparraldean geratu ziren. Emeterio Arreseren kasua pittin bat berezia da, besteak baino adintsuagoa izanik lehendik ere ibilia zen Ameriketara joan eta etorri.



Lagun batek egindako karikatura. J.A.I. eta Tolosako bere adiskideak

Hasierak

Jon Andoni Irazusta Muñoa Tolosan jaio zen 1884ko ekainaren 9an. Gurasoak, Felipe Irazusta Azkarraga eta Juana Muñoa Irazusta, tolosarrak ziren. Aita jeltokia izan zen eta baita Tolosako alkatea ere. Berak fundatu zuen *Aguas de Insalus* enpresa. Bost seme-alaba izan zituzten: Jon Andoni izan zen zaharrena eta gero Maria, Jose Mari, Santos Jesus eta Rosario izan ziren. Maria eta Jose Mari gerra aurretik hil ziren. Santos mediku-dentista izan zen, Valladoliden ikasitakoa, eta denek *Ttatto* deitzen zioten. Rosario, Ameriketako egin ondoren Donostiara itzuli zen eta gero, Madrilén hil zen, ezkongabe. Eta Tolosan Jon Andoni *Juanito* edo *Xuxupe* ezizenez ezagutzen zuten, azken izen hau elizako otoitzetik hartua: «*Orate fratres... Suscipiat Dominus...*».



J.A.I. gazte denboran bere lagun mina izandako Ixaka Lopez-Mendizabal idazlearekin batera

Tolosako Eskolapioetan ikasi ondoren Zuzenbide ikasketak egin zituen Deustun eta Madrilén eta 1910. urterako abokatu lanetan hasi zen eta horrela jarraitu zuen 1936. urtera arte, nekazaritzaren munduko arazoetan berezitu zelarik. Gainera *Aguas de Insalus* enpresako gerentea izan zen. Irazusta familiak torloju enpresa bat zeukan Tolosatik irten eta Albizturreko bidean. Eta Albizturren bertan bi baserri ere bazituzten, bat *Toledo* izenekoa eta bestea *Etarte*. *Joañixio* nobelan *Etarte* da, hain juxtu, protagonista eta bere familia bizi den baserriaren izena baina Jon Andoni Irazustak ez du baserri hori Albizturren kokatzen, Amezketan baizik.

Jon Andoni Irazusta Tolosako Batzokiko akzioduna izan zen eta hil arte jarraitu zuen ELA sindikatuko kuota ordaintzen.



Tolosako San Frantzisko etorbidean dagoen etxe honetan, bigarren solairuan, bizi izan zen J.A.I. bere familiarekin gerra piztu zen arte

Kultura handikoa

Kultura handiko gizona zen eta oso hizlari trebea, beti ere euskara eta euskal kulturaren alde lan egin zuen. Egunkari eta aldizkarietan idatzi zuen. Donostiako *El Día* egunkariaren iganderokoan idazten zuen «Jon Andoni» goitizenarekin, arrakasta handiz. Euskaraz oso ondo zekien eta euskaltzale eta abertzale gisa sarri ibili zen herriz herri hitzaldiak egiten. Jesus Insausti *Uzturre*-k dio Errepublika garaian askotan ibili zela Nafarroa aldetik Ixaka Lopez-Mendizabal, Fausto Leunda eta Jon Andoni Irazustari laguntzen, hauek beren hitzaldiak egiten zituzten bitartean eta oso hizlari trebeak zirela.

Hona hemen, adibide gisa, 1933ko maiatzaren 21ean Jon Andoni Irazustak egin zuen hitzaldia Lizartzan, Tolosa eta inguruko Euzko Gaztediak antolatutako irteeran. Igande goiz hartan, euri hanka mehe langarra etengabe ari zuela, horrela mintzatu zitzaien:

«Hogeita zazpi urte hauetan, zuen artean nabilkizue. Ongi ezagutzen nauzue noski. Ez dut nire ustez nireganako gorrotorik erein. Ez dut haserre biderik jarri. Gaur ere ez nator haserre bila. Ez nator zuek engainatzera. Egon ninteke, egon gintezke okerrean, baina asmo zuhurrenak dakartzagu zuen aurrera...». Eta kazetariak hala amaitzen du esanez: «Hitzaldi egokia, adierraza, mamitsua, Irazusta jaunak ondoren zuzendu ziguna. Halakoxea baita bera».

Antonio María Labaien eta Ixaka Lopez-Mendizabalekin, *Antzerti* aldizkaria sortu zuen, 1932an, zuzendari-kide izanez 1936an argitaratzeari utzi zitzaion arte.

Tolosan oso gizon maitatua izan zen Jon Andoni Irazusta. Gizon zintzo eta onaren ospea zuen



Irazustaren familiarena zen baserri hau, *Etarte*. Albiztur herrian dago kokatua



Eskolapioen ikastetxea garai batean eraikin hau izan zen, Triangelu plazan. Bertan egin zituen lehen ikasketak Jon Andoni Irazustak

herrian. Denekin ondo konpontzen eta nagusia izanik, sozialki oso garai latzak izan arren, baita langileekin ere. Hara zer dioen honi buruz langile eta sindikalista zen Uzturre-k:

«Xuxupe besterik zen. Nagusi eta abertzale. Tolosan inor kopeta gora zuela azaldu baze-din, Jon Andoni zen. Eusko langileok gene-kien hobekien. Jon Andonirekin ez zen bel-durrik; ez zuen honek nagusi bezala hizketa biderik emango. Haserre gogorrak izan zituen baina ez langileekin, nagusi jendeare-kin baizik. Ez al zizkioten ba “Patronaleko” ateak itxi? Langileekin onegia omen zen, esku zabalegia... Tolosan azkeneko izan zen mitinetako batean, azkenekoa izango al zen, Jon Andoni mintzatu zen Gorriti Antzokian; eusko langileok aukeratu genuen, geuk eska-

tu genion mintza zedila gure izenean edo. Jendez beterik zegoen antzokia. Abertzale ez ziren langile asko joan ziren, sozialista, anarkista eta abar. Beste norbait hizlari izan balitz ez zen iskanbilarik faltako. Jon Andoni-rekin ezin. Nor hasiko zitzaion langile artean Xuxuperi zaputx egiten?»

Gizon zintzoa eta ona, beraz. Hona hemen beste pasadizo bat Jesus Insausti *Uzturre*-k berak kontatua: «Gazte nintzen, oso gazte. Eta kartzelan nengoen. Donostiako Ondarreta kartzelako lokutorioan dakusat neure burua. Errepublikako garaia ziren. Egun batetaz gogoratzen naiz bereziki: Don Jose eta beste tolosar bat etorri baitzitzaizkidan bisitan, ahaztu ezineko Jon Andoni, tolosarrentzat Xuxupe, Jon Andoni Irazusta alegia».



Tolosako Aste Santuan azaltzen da hemen J.A.I. bere lagunekin batera

Politika lanetan

Jon Andoni Irazusta EAJ eta ELAko militantea izan zen. 1919-1920 biurtekoan GBBko idazkari karguan jardun zuen.

Madrilgo Gorteetan II. Errepublikan Gipuzkoako diputatu jeltzale izan zen, orduan EAJ zelarik probintzian indar gehien zeukan partidua. 1933an, GBBko burukide zelarik, Leizaola, Irujo, Pica-bea eta Monzon abertzaleekin eta Ramiro de Maeztu eskuindarrarekin batera, Gorte espainoletako diputatu hautatu zuten Gipuzkoatik, kargu hau berriro egin zuen 1936ko otsaileko



Tolosako Rondilla kalean, eraikin honetan, zegoen Batzokia. Bertan egindako Jon Andoni Irazustaren hitzaldiak famatuak izan ziren

hauteskundeetan. Bigarren biurteko errepublikarreko Gorte haietan, euskal gutxiengoaren bigarren buru izan zen, bere parlamentu-jarduera, sasoi hartan Landa Errentamenduei buruzko Legea indarrean jartzeak kaltetutako nekazarien eskubideen defentsan emanez, batez ere.

Loiolako kuarletean hiru soldadu mehatxatu zituzten, 1934an, espainieraz hitz egiten ez zekitelako (euskaraz besterik ez zekiten).

Albiste hori *El Día*-n agertu zen eta izugarriz-ko iskanbila sortu. Defentsa Ministroak bere burua erantzutera beharturik ikusi zuen Madrilgo Parlamentuan istilu horri buruz Jon Andoni Irazusta diputatu jeltzaleak egin zion galderagatik.

EAJren ordezkarietako bat izan zen 1935an Genevan egin zen XI. Nazionalitateen Biltzarrean.

Garai hartan eta Tolosako Batzokian, Jon Andoni Irazustak hitzaldi sorta bat egin zuen Estatutuari buruz, une larri batean, Jagi-Jagiren barnean kontra zeuden batzuk altxatu zirenean. Bilera istilutsuak izan ziren baina oso interesgarriak.



Madrilgo Parlamentuan Jon Andoni Irazustaren lanaren berri ematen da jakitera egunkari honetan

Gerratea

Irazustatarrak 1936ko uztailaren 18an bertan atera ziren Tolosatik, kotxez, Hondarribiarantz. Gerora Donostiara etorriko ziren. Baina Jon Andoni, eta Santos bere anaia, ez ziren Hondarribiara joan, Donostian geratu zirelako zenbait gestio larri egiten.

Jon Andonik bizia bati baino gehiagori salbatu zion gestio haiekin, esate baterako, mediku militarra zen Periko Iraola zegoen kartzelatik atera egin zuen eta horrela bizia salbatu zion.

Gerra zibila piztu zenean, Irujo, Pikabea, Lasarte eta diputatu sozialista zen Amilibiarekin batera, 1936ko uztailaren Donostiako Loiolako kuartelen errendapena lortu zuten negoziazioetan parte hartu zuen Jon Andoni Irazustak.

Tolosa 1936ko abuztuaren 11n hartu zuten. Abuztuaren hasieran Irazusta Deban zegoen eta handik Itziarrera joan zen lagunak zituen beste tolosar batzuei bisita egitera, bere anaiarekin batera.

Gerra hasierako egun haiek oso zalapartatsuak izan ziren, ezin larriagoak izateaz gain, eta gauzak oso nahasi zeuden. Hona hemen Jesus Insausti *Uzturre* tolosarrak gogoratutakoa:

«Gerra hasierako egun haietako batean Jon Andoni Irazustarekin egin nuen topo Gipuzkoako Diputazioan. Goiz bat zen; Gipuzkoako Diputazioaren mikeleteen Komandantea, Kortazar jauna, suizidatu zen egun hura, Dipu-

tazioko komun batean suizidatu zen. Egun oso goibela izan zen.

Inolako motiborik gabe edonor faxistatzat salatua izan zitekeen eta eszena ezin espantagarriagoak ikusten ziren, egun hartan bertan Diputazioko arkupetan gertatu zen moduan. Juxtu egun hartan ere komunista ospetsu bat zegoen Gipuzkoako Diputazioan. Ospe handiko Jesus Larrañaga zen hura. Eta harengana hurbildu zen Jon Andoni Irazusta emoziozko hitzekin laguntza eske, esanez mesedez ez zezatela jendea atxilotu eta kartzelaratu besterik gabe, susmo hutsak erabiliz, ia beti funtsik gabekoak izan ohi zirenak bestalde. Jesus

Larrañaga *Goierri*-ren erantzuna Jon Andoni Irazustaren bularrean pistola jartzea izan zen esanez jarraitzen bazuen ordura arte bezala, “salbatzailearena” egiten, hantxe bertan hilko (“akabatuko”) zuela...

Betidanik oso animatsua izan zen Irazustari, hura ikustean, bihotza erori zitzaion; seko lur jota geratu zen. Ez zen gutxiagorako. Eta gau hartan bertan edo biharamunean, Iparraldera alde egin zuen. Artean ez zegoen Euskal Jaur-larritza osatua. Bide batez esanda, Jose Antonio Agirre Lehendakari izendatu zuten bezain agudo, honek Irazustari Bilbora etortzeko proposatu zion, bertan bere beharra zegoela-



Los doce diputados de la minoría parlamentaria vasca, homenajeados en Tolosa: De izquierda a derecha (sentados): Rafael de Pika-bea, Ramón Bikuila, José Horn, José Antonio Agirre y Jesús M^o Leizaola; (De pie): Eliodoro de la Torre, Telesforo Monzón, Manuel Robles Azargiz, Manuel Injo, Juan Antonio Carraga, Juan Antonio de Irazusta y Francisco Javier de Landaburu. (Foto: Alderdi).

Politikagintzan aritu zen J.A.I., PNV-EAJ-ko diputatu gisa, gerra piztu zen arte. Hemen J.A. Agirre lehendakariarekin eta beste diputatu batzuekin azaltzen da

ko. Jon Andoni Irazusta Latinoamerikarantz itsasoratu zen.

Bere bizitza osoan Irazustak uste izan zuen une haietan huts egin zuela eta bere errua nolabait ordaintzearen Euskadira inoiz gehiago ez bueltatzea inposatu zion bere buruari, nahiz eta beti bizi izan zen EAJ eta bere aberria gogoan zituela. Han apaiz egin zen. Hil zen arte, urtero bidali zuen diru kopuru bat ELA-rentzat. Fede handia zion ELA-ri.»



Gizon zorrotza, kezkatua izan zen J.A.I. baina oso umore handiko pertsona aldi berean



Meza eman eta gero Limatik Peruko oihanera bidali zuten J.A.I., berak hala eskatuta

Atzerrian nobelagile

Irazustatarrak Donibane Lohitzun-Ziburura joan ziren, 1936an. Jon Andoni Irazusta Bartzelonan bizi izan zen 1937tik aurrera. Bere parlamentu-jarduera betetzeaz gain, EAJren ordezkaria izan zen Kataluniaren hiriburuan, eta bietan jardungo zuen harik eta 1939an Frantziara erbesteratu arte.

Ziburutik Jon Andoni Irazusta eta bere anaia, Santos, Ameriketara joan ziren 1939an. Bera ezkongai eta anaia ezkontuta zegoela joan ziren biak, Panaman egonaldi labur bat egin ondoren, Kolonbiara hemen lagun bat zeukatelako. Bogotan bizi izan zen Irazusta; hemen lagun kazetari batzuek –bat egunkari baten jabea zena– lagundu zioten. Garai hau gero *Bizia garratza da* bere nobelan azalduko zuen, bere bizitzako pasadizo askorekin egin zuen bezalaxe. Herrialde honetan Kanpo Arazoetako Ministerioan lan egin zuen. Sasoi horretan utzi zuen politika eginkorra, nahiz eta noizean behin Agirre lehendakariaren politika amerikarreko zenbait alderditan lagundu.

Santos anaia Kolonbian geratu zen Jon Andonik alde egin zuenean.

Puerto Ricora joan zen beranduago eta hemen Kolonbiarako arazo kontsularrak konpontzen aritu zen. 1944ko abenduan, eta

Puerto Ricon zegoela, amaitu zuen *Joañixio* nobela. Puerto Ricon Kolonbiako kontsularen langintza bete zuen 1947an eta baita Elkarre Kontsularren Lehendakaritza ere, zeregin hauek negozioekin eta literaturarekin batera eginez. Urte horietan hasi zen Caracas-en argitaratzen zen *Euzkadi* aldizkariarekin lankidetzan, beti euskaraz eta *Boriquen* goitizenarekin.

Puerto Ricon Jon Andoni Irazustarekin elkar-tu ziren ama eta Rosario arreba.

Amaren heriotzak Puerto Rico-n, eta arreba Rosariok Euskadira itzultzea erabaki izanak, gogo-beheraldi sakon batera eramanez zuten Jon Andoni Irazusta. Eta depresio hori areagotu egin zen biblioteka erre zitzaionean, hura Argentinara zeramatela, han bizi baitzen bere iloba bat.



Nuntzioak ordenatu zuen eta zeremonian Peruko presidentea, Odria jenerala, eta emaztea egon ziren

Argentina eta Peru

Argentinara joan zen eta Buenos Airesen bere iloba batekin egon zen. Gero, Cordoba-ra joan zen, hemen errepresentazio batzuk eramaten lan egin zuelarik.

Apaiz izateko hasi zen ikasten, 1949an, Aita Pasiotarrekin. Pasiotarra egin zen eta, berak eskatuta, lortu zuen Peruko misioetara bidali zezaten hango indioekin lan egiteko. Apaiz egin eta bere lehen meza Liman eman zuen, 1951ko irailaren 2an, 67 urte zituela. Nuntzioak ordenatu zuen eta aita-amabitxiak Ambrosio Zatarain (Panaman eta Kolonbian honen administratzaile izan zen Jon Andoni) eta Rosario bere arreba izan zituen eta baita Peru-ko Errepublikako presidentea, Manuel A. Odria jenerala eta honen emaztea, Carmen Berckmeyer de Gamero ere.

Limako komentu batean egonaldi labur baten ostean, misiolari izateko zuen xedea lortu zuen, bere misio-zereginetan Tarapoton, Peru-ko Moyobamba-ko probintzian, jardunez. Lehen meza eman eta handik sei hilabetera, 1952ko martxoan, hil zen, Liman.



Liman egin zuten apaiz eta han eman zuen lehen meza

Nolakoa izan zen

Hona hemen Jon Andoni Irazusta ezagutu zuten batzuek berari buruz esandakoa (haue-tako batzuk bere lagun handiak izan ziren): Jon Andonik aldarte aldakorra zuen, gauza batzuetarako alaia eta umoreduna, beste batzuetan berriz ezkorra eta triste samarra.

Gauzak ilun ikusten zituen gerra aurreko urteetan, eta lagunek esaten zioten ez izateko hain iluna, jendea beldurtu egiten zuela-eta (hau gerra piztu aurretik noski). Gerora ikusi zen, ordea, Jon Andonik arrazoi zuela tamalez.

Aguas de Insalus enpresako gerentea izan zen, esan bezala, abokatua izateaz gain. Periko Elo-segi tolosarra saltzailea zen, eta bisitatzera



Apaiz egin eta berehalaxe, handik sei hilabetera, hil zen Liman J.A.I.

joaten zitzaion Insalusera eta esaten zuen Jon Andoni oso lehorra zela, zaputza, oso zuzena. Berak esandakoa egin beharra zegoen, eta ez zegoen besterik. Izan zituen Jon Andonik andregaiak baina azkenean ez zen ezkondu inorekin, ez ordea berak nahi izan ez zuelako. Hau ere islatu zuen Irazustak bere obretan modu batera eta bestera. Mutiltzarra beraz, eta zahartzaroan, apaiz.

Sasoi onean zegoenean umore handiko gizona zen: hori ez zuen inoiz galdu, ez bere bizi-tzan ezta bere obretan ere. Baina baita jenio handi eta bizikoa ere.

Oso umila eta ona, gizon zintzoa baina bestetan berak esandakoa egin behar zen, nahi eta nahi ez, ez zuen ezezkorik onartzen.

Azken agurra eman behar zuenean, Buenos Airesen, Peruko oihanera joan behar zuelako apaiz gisa, argazkiak egiterakoan Joan Andonik galtzak jaitsi zituen eta bertakoei ipurdia erakutsi zien, hauen artean Tolosako bere lagun handia izan zen Ixaka Lopez-Mendizabal zegolarik... Oso broma zalea baitzen. Umorea ez zuen inoiz galdu, ezta apaiztu eta gero ere, eta hau Moyobambatik –Peruko oihanetik– idatzi zituen testuak irakurriz egiazta dezakegu.



Hemen palaz jokatzeko azaltzen da, 33 urte zituela, bere lagun mina izandako Ixaka Lopez-Mendizabal idazlearekin batera

Obrak

Egunkari eta aldizkarietan asko idatzi zuen, bai euskaraz nola gazteleraz ere. Donostiako *El Día*-n, igandero idazten zuen «Ego Aizea» izengoitiarekin. Oso irakurria izaten zen orrialde hori.

Abokatu eta Diputatu gisa ere zenbait lan argitaratu zituen (Euzko-Aldunen Alkartea; Ley de arrendamientos rústicos...).

Euskarari buruz *Oñarrik* eta *Beti bat* lanak argitaratu zituen, besteren artean. Eta zuzenago literaturarekin lotuta: *Losintxak*, Martinez Sierraren lana euskaratu zuen eta, gainera, *Revista de América*-n *Cartas boricuas* deiturikoak kaleratu zituen.

Buenos Airesen kaleratzen zen *Euzko Deya*-n (aldizkari hau hilean hiru aldiz publikatzen zen) asko idatzi zuen Joan Andoni Irazustak, baita 1950. urtean ere, bera Moyobamban

zegoenean; esate baterako: *Txakur Beltza*, *Datorrela*, *Indioa eta arkakosoa*, *Egitazko Debozioa*... artikulua.

Baina gaur egun Jon Andoni Irazustak leku handia baldin badu Euskal Literaturaren historian bi nobela bikain hauengatik da: *Joañixio* eta *Bizia garratza da*.



Asko idatzi zuen prentsarako, Euskal Herrian eta baita Ameriketan ere. Buenos Aireseko *Euzko Deyan* artikulua ugari kaleratu zituen



Hauek dira bere obra nagusiak, bi nobela bikain



Peruko oihanean zegoenean ere, behin apaiztu ondoren, jarraitu zuen prentsan idazten

1

Joañixio

946ean kaleratu zen nobela hau Argentinan bere lagun Ixaka Lopez-Mendizabalena zen *Ekin* editorialean, idazleak bi urte lehenago Puerto Ricon amaitu bazuen ere, 1944ko abenduaren 15ean hain zuzen.

Etarte baserria Amezketako auzo batean dago kokaturik, malkar batean. Hantxe bizi dira Pello eta Katalin senar-emazteak, beren zazpi seme-alabekin: Miel eta Auxtiña seme eta alaba zaharrenak dira eta gero Teexa, Lutxi, Joañixio, Pantxika datoz. Eta azkena, seme gazteena, Luix. Baserriko bizimodua



Nobela honetan pasarte autobiografiko ugari sartzen ditu. Tolosa oso ondo deskribatzen da bertan

daramate bere lan eta nekeekin –azienda gobernatu beharra, lur-sailak zaindu eta landu behar– feriako kontuekin; eta hau guztia, herrixka bateko bizimodu arrunta eginez, igandeak gordez, festa-giroak ospatuz...

Etarte baserrian aita (Pello) eta ama (Katalin) hizketan ari dira Joañixio semearen etorkizunari buruz. Beste seme-alaba guztien bidea

ondo bideratuta dute etorkizunerako baina Joañoixiorekin daude kezkatuta. Laster soldadu joan beharko baitu, eta ez dute nahi. Horrela, senarrak hauxe esaten dio emazteari:

– «Katalin, geldirik ba gaude, mutil ori gudari eramango digue. Zerbait egin bearrean gara. Ameriketara, auzoko bi anaiak dauden tokin ez litzake gaizki izango. Zer derizkiotzu?

– Zuri esateko mokomokoan neukan. Hamai-ka bider orixe esan diot nere buruari.»

Amak ez du atsedetik hartzen Joañoixio gudari eramane behar dutela pentsatze hutsarekin. Eta semea konbentzitu nahi du gudari izan gabe alde egin dezan. Beste seme-alaben bidea ongi bideratuta baitauka.

«Amak luzaro itz egin zion Joañoixiori. – Zurea, zurea, Joañoixio! Datorren urtean gudari. Guda errez sortzen da ta mutil bikañenak or galtzen ditue itxura gabe. Gudari eramango ba ziñueke ez nuke lo aundirik egingo. Jauna, nere semea iltzeko zorin!



Tolosako Rondilla kalean zegoen kokatuta *Pelipanea* estatua.
Bertan bizitzen ziren Ameriketatik etorritako indianoak

...Aitak eta nik askotan esan degu zuretzat onena Ameriketara joatea ez ote litzaken.»

Azkenean amak esandakoa egingo du Joañoxiok eta Ameriketara joango da.

Goiz batean Joañoxiok, aita lagun duela, baserri-
tik abiatuko da: Amezketa, Tolosa eta Donostiaraino aurrena. Hemendik Baztango baserri batera ilunabarrerako. Aita, negar-malkoz, agurtu eta badoa Joañoxiok muga pasatzen lagunduko dion adiskidearekin mendian gora karabineroen beldurrez. Halako batean iritsi dira Ezpeletara. Handik, autobusa hartuz, Baionara eta hemendik trenetaz, azkenean, Bordelera iritsiko da Joañoxiok, hemen *Cuba* itsasontzian ozeanoa zeharkatzeko. Itsasontzian lagun euskalduna egiten du, Xanpion ezpeletarra, eta horrela, hiru astez itsasoan pasa ondoren, ailegatuko da Buenos Airesera. Bertan dauzka bere zain Erramon eta Telex anaia amezketarrak.

Buenos Airesetik hiru bat egunera dagoen *estancia* batean jarriko da bizitzen eta lanean Joañoxiok, beti ere bi anaia amezketarren laguntzapean. Lan gogorra eta bakardade handia. Horrela hogeitabat urte bi anaiekin batera, etxeko berririk hiru urtez behin edo jasotzen duen gutun baten bidez. Halako batean bi anaia horiek, diruz arazorik gabe baina nahiko nekatu eta adinduta, Euskadira itzultzea erabaki dute. Negozio erdia Joañoxiori saldu eta bi anaiek alde egiten dute Argentinatik. Donostian bizitzen jarrita hauetako bat, azkenean, Joa-

ñoxioren arreba batekin, Teexa, ezkonduko da. Bitartean Joañoxiok lanean jarraituko du, pampan galduta, jo eta ke, urteak eta urteak, dirua aurrezten narratzaileak, bat-batean, berrogeita hamalau urte dauzkala esango digun arte. Bizitza aurrera doala ikusten du orduan, bera zahartzen hasia dagoela eta ez duela zentzu handirik pampa galdu hartan lanean hil arte jarraitzeak, eta agian oso gaizki egin zuela Euskadi uztea erabaki zuen egun hartan.

«Au ez da nere tokia. Nere tokia Euskadin. Euskadira joan bear.»

Argentina utzi eta Euskadira itzultzea erabakitzen du orduan eta aldi berean bueltara ari da ez ote den hobe egongo ezkondu. Norekin ordea? Maitexa datorkio etengabe gogorra. Baina bere iloba da eta gainera hemeretzi urte besterik ez dauzka. Ideia hori burutik ezin baztertuz gutun batzuk idazten ditu, ikusteko zer-nolako aukerarik izan dezakeen ideia hori aurrera eramateko.

Eta hala, egun batean Joañoxiok Artola jauna, indiano aberats bihurturik, Euskadira itzuli da. Baina urteak ez dira alferrik joan: dena aurkitzen baitu oso aldatuta, herria, baserria; jendea ezezagun egiten zaio... «Au al da nere erria?», galdetzen du harriturik eta tristuraz.

Goiz batean eta Lezoko elizan, Juan Ignacio Artola ezkondu egin da Maria Teresa Artolarekin, hots, Joañoxiok baino hogeita hamabost urte gazteago den bere iloba Maitexarekin. Tolosan jarriko dira bizitzen eta Joañoxiok



Joañixio nobelan *Etarte* baserria Amezketan balego bezala deskribatzen zaigu. Bertan jaioa zen Joañixio

apaizari esaten dio Amerika hemen dagoela, Euskadin, eta gazteak konbentzitu behar dituela Ameriketarantz joan ez daitezen.

Ezkundu eta bizpahiru urteren ondoren haurra izan dute: Miren Artola Artola. Joañixio makal samar dabil osasunez. Eta ia hirurogei urte dituela bigarren haurra izan dute, Jon Iñaki. Baina haurrak makal samar daude osasunez eta Joañixio okerrago oraindik. Bere beherakada nabarmena da eta konturatzen da ederki asko, apaizarekin izandako solasaldi honetan ikus daitekeenez:

– «Zurea zoriona, Joañixio: Maitexa bezelako emakumeak banan-banan izan oi dira.

– Egia da, bai. Egia, Maitexa besterik ez bezelakoa dala, bañan zoriona... Ez al du ikusi zeñen ume aulak ditugun? Ala bear zun!: ni zarra ta gañera Maitexan osaba... Ala bear zun! India-noan amaia baño gauza motxagorik ez da, apaiz jauna. Amezketako mutillak galdetzen ba diote, ez bezaio iñori Ameriketara joateko esan. Zer nai du neri gertatu zaiana baño geiago?: ni baño gaztego gutxi etortzen dira; ni baño aberatsago ere bai; nik baño emazte oberik, iñork ez; ta alaz guztiz bi akats ezin kendu: umeak gaitzkorrak, aulak izatea, ta umezurtz goiztxo utzi bearra... Gogorra da! Eta ori guztia, Ameriketan, esateko egun on

bat izan gabe. Beti onerako gogoan, onera iri-txi ta au gertatzeko...!

— Egia diozu, Joañoixio; bañan zenbatez zorigaiztogoia izango zan emaztea bear ez bezelakoa izan ba zendun; senideekin aserre izan ba ziñan; ta ainbeste gauza geiago. Oraindik Jainkoari eskerrak eman bear dizkatzu ta ez aztu lagunik onena ta aundina gure Jainko maitea degula. Gañerakoan, esan dizkidatzun guztik egik dira. Emengo mutillak, Amerika emen daukate. Ez due iñora joan bearrik. Askotan gertatzen dana, gurasoak diru-usai orrekin itxutzen dira ta berak izan oi dira okerrenak mutillak Ameriketara bialtzeko. Ez bildurrik izan, Joañoixio, nik esanda iñor joango danik. Gauz on guzik zer balio duen, galtzean bakarrik jakiten da. Bestela, sendia nolatan utzi?; sendi guztian ingurun bizitzea bezelakorik zer da?; lagunak nola utzi?, berriro egitazkoak ezin egin da?; aberria nolatan utzi?, ez al da ori maitetasun aundienetako bat? A Joañoixio, Joañoixio!: etxean gauden artean, biotzak lana egi-

ten du: Ameriketara joatean, biotza legortu ta burua bakarrik lanerako.»

Joañoixiok hamar urte darama ezkondurik, eta bere bizitzan ez da aldaketa handirik izan. Mirenek zortzi urte dauzka eta Jon Iñakik zazpi. Urteak aurrera joan ahala, Joañoixio gero eta ahulago dago. *Zartzaro ona* deitzen den azken kapituluan Joañoixio lasai dago, badaki hiltzera doala eta gauza guztiak ondo prestatuta utzi ditu. Apaiza etorri da eta hauxe da azken momentuko solasaldia:

«— Joañoixio: Jainkoan aurrean gaude. Zerbait esatekorik ba dezu, orain konpesatu. Batere damurik ba al dezu?

— Bat...aundia...aundia...

— Esan ba, esan; gure Jainkoak denak barkatu-ko dizkitzu.

— Neonek...barkatu...bear...

— Esan, esan, zer dezun.

—Ameriketara...joandako...damua.»

Bizia garratza da

Bi euskaldun, jakintsu eta karreradun, Bordeleko kaian daude zain itsasontzia noiz abiatuko Ameriketarantz. Andoni Uriaurre eta Ander Zubiburu badoaz Kolonbiara *Cuba* itsasontzian.

«Ez batak eta ez besteak ez zuen Ameriketara joan bearrik oparo bizitzeko. Oparo eta lasai etxean bizi ziran. Zailla izango zan Ameriketara ain ongi bizitzea. Bañan guda madarikatu baten ostikadak biali zitun eta an zijozazen.»

Ez doaz beraz etxetik alde egitera, arrazoi ekonomikoak direla medio, arazo politikoek eraginda baizik:



Nobela honetan ere pasarte autobiografiko ugari azaltzen dizkigu Jon Andoni Irazustak

«Europa ontan nazkagarrikeria besterik ez dago. Bere iru milla urtetako krakak estalia daukate, eta erratzez goitik behera garbitzen ez dan bitartean emen bizitzerik ez dago.»

Biek, halere, atzean utzi dituzten amak eta arrebez gain, badute pentsamendua betetzen dieten bi pertsona: Andoni Uriaurrek, Bixenta Ozama eta Ander Zubiburuk, Miren Orreaga.

Behin Kolonbian biak Bogotan hasten dira lanean, inolako arazorik gabe bertan dauden beste euskaldun batzuen laguntzari esker. Andoni legegizon batekin ari da lanean eta egunkarietan idazten du. Ander berriz, injenerua zen eta arkitekto baten bulegoan ari da lanean. Halako batean, Zubiburuk notizia latza jaso du gutunaren bidez, Mirentxo Orreaga lekaime egin dela eta etxaurreko komentura sartu dela jaioterrian.

Handik gutxira, gutun hura dela eta, Ander nahasten hasiko da esanez Bogotan ezin dela bizi eta basamortura joateko gogoia daukala. Ander azkenean basamortura joango da urre bila. Eta bitartean Andoniri Bixenta etorri zaio Euskaditik berarekin geratzeko asmoz, baina ez da bakarrik etorri, lehendik izandako alaba txiki batekin baizik. Anderrek istiluak izango ditu aspalditik han bizi zen getxotar batekin elkartu delako, *El Cojo Gómez* deitzen zioten honi eta kontrabandoko saltsa askotan sartua zebilen. Hauetako batean hil egingo dute eta Anderrek juxtu-juxtu alde egingo du handik Medellin-era.

Anderri, azkenean, oso gaizki atera zaizkio bere urre negozioak eta miseria gorrian, zentimorik gabe, zaharkituta eta oso gaixo amaituko du bere bizitza. Gainera, kasualitatearen kasualitatez, Ander bere Miren maitea izandakoaren aurre-aurrean hilko da orain lekai-me bihurturik. Miren Orreagaren kongregazioek Kolonbiara bidali zuten hau fundazio



J.A.I.-ren etxetik berrehun metrora dago moja komentua hau. *Bizia garratza da* nobelako protagonistetako bat moja sartzen da, mutilarekin ezkondu beharrean. Berrito ere bizitza eta fikzioa uztartzen ditu Irazustak

bat sortzera Bogotan eta Medellinera egun batzuetarako etorri eta hantxe, katedralaren aurrean, aurkitu behar Ander Zubiburu hil zorian.

Bestalde gauzak ez dabil tza batere ongi Andoniri Uriaurre eta Bixenta Ozamaren artean. Andonik ezin du ikusi Bixentak militar harekin izandako alaba eta harremanak gero eta hotzagoak ari dira suertatzen. Azkenean Andonik Estatu Batuetara negozio-bidaia bat egin behar duela eta, Bixenta eta kapitainarekin izandako haurra berrito Euskalerrira bidaltzen ditu.

Bixentak, Euskadin dagoela, haur bat izango du, oraingo hau Andonirena. Baina gaizki ulertu batzuek direla medio, Bixentak eta Andonik ez dute gehiago elkar ikusiko. Handik denbora puska batera jakingo du Bixentak Andoni

Ameriketan hil egin dela. Denbora aurrera doa eta herrian Bixentari, beti beltzez jantzita eta beti bakarrik, *Ozamaneko txorua* deitzen diote. Egunero etxetik atera eta leku berera joan ohi da, bertan Amerika aldera begiratzuz geratzeko. Orduan hasten da deiadarka: «Andoni... ndoni... doniiii».

Nobela hau 1950eko abuztuan kaleratu zen Buenos Airesen, bere lagun Ixaka Lopez-Mendizabalena zen *Ekin* editorialean.



Jon Andoni Irazustak oso kritika onak jaso izan ditu adituengandik

Nola idatzi zituen bi nobela hauek?

Bi nobela hauek idatzi zituenean Jon Andoni Irazustak bazekien ez zela inoiz Euskadira itzuliko. Gerra zibila galduta eta diktadura latz baten menpe zegoen bere herria orduan eta izugarri sufritzen zuen egoera horrekin.

Gerra zibilaren hasieran, Jose Antonio Agirre Lehendakari izendatu zuten bezain agudo, honek Irazustari Bilbora etortzeko proposatu zion, bertan bere beharra zeukalako. Baina Jon Andoni Irazusta Latinoamerikarantz itsasoratu zen.

Bere bizitza osoan Irazustak uste izan zuen une haietan huts egin zuela eta bere errua nolabait ordaintzearren Euskadira inoiz gehiago ez bueltatzea inposatu zion bere buruari.

Bi nobela hauek idatzi zituenean Joan Andoni Irazustak honako hausnarketa-gai hauek zeuzkan beti gogoan:

– Une hartako Euskadiren egoera, gerra zibila galdu ondoren eta orduan pairatzen ari zen diktadura latza: egoera politiko eta soziala eta, baita ere, euskararen egoera penagarria zigorpean.

– Euskaditik alde egindako jende askoren egoera (eta baita berarena ere), milaka eta milaka Euskadin geratu ziren bitartean (haue-tatik ehunaka eta ehunaka hilda edo kartzele-tan preso).

– Berak pertsonalki hartutako erabakia, Ameriketara etortzearena hain zuzen ere. Ondo egin ote zuen ala gaizki? Hori da berak bere baitatik inoiz erauzi ezin izango zuen lelo zitala, horixe izango delarik bere bi nobelen azpian dagoen gai sakona. Eta honekin lotuta noski, separazioarena. Separazioak betirako haustura esan nahi duelarik.

Horri buruz hitz egiten dute, azken finean, bere bi nobelek eta ez beste ezertaz, jakinik, gainera, liburu horiek material autobiografikoaz daudela eginda hasieratik amaieraraino.

Jakinik liburuxka hau ez dela lekurik egokiena orain arte esandakoa zehaztasunez erakusteko, halaz ere, autobiografia dela-eta, adibide bat emango dut eta gera bedi beste guztia beste liburu baterako.

Dakigunez, *Bizia garratza* da nobelan, protagonistetako bat Euskal Herria utzi eta Ameriketara doa, Kolonbiara hain juxtu, gerra dela-eta (Jon Andoni Irazustak egileak egin zuen bezalaxe) eta andregaia herrian geratu dela esaten da eta kontaktzen zaigu, baita ere, nola handik pixka batera neskato hori moja sartzen den. Neska horren izena M. Orreaga da. Eta protagonistak uste du moja sartu dela berak ezkontza hitzik aitatu ez ziolako eta gainera, Ameriketara alde egin duelako...

Kontua da Jon Andoni Irazustak andregaia izan zuela Tolosan gerra hasi baino zenbait urte lehenago eta gauzak oso aurreratuta

zeudela ezkontza burutzeko. Gauzak, ordea, ez ziren beste behin ere atera Irazustak nahi bezala eta azkenean, andregai hori moja sartu zen eta Irazustak Ameriketara alde egin zuen. «Orreaga etxaurreko lekaimetara sartu zen», esaten zaigu nobela horretako pasarte batean. Eta hori kontaktzen digu Irazustak nobelan benetan ere horrelaxe suertatu zelako. Irazusta eta bere andregaia Tolosan bizi ziren kale berean, San Francisco etorbidean bata bestearengandik berrehun bat metrotara eta juxtu erdi-erdian dago Jesusen Alaben komentua, ehun bat metrotara eta komentu horretara sartu zen moja, hain juxtu, Irazustaren andregai izandakoa. Nobela honetan neska protagonista horren izena M. Orreaga da eta Tolosan benetan existitu zen neskarena, berriz, L. Olarreaga!

Esan bezala zehaztasun autobiografikoak ugarriak dira bi nobeletan.

Eta pertsonaia nagusi horiek sinbolo dira beti, Jon Andoniri Irazustari berari eta Euskal Herriari gertaturikoaren ikur eta isla.

Horrela irakurri eta ulertu behar dira bi nobela horiek. Eta gainera, bi liburuak batera ulertu behar dira, bata bestearen osagarri delarik. Bi nobeletan deserriratzeko bat dago, Euskal Herritik Ameriketara bietan; protagonista, batean, soldaduskatik ihes eta etor daitkeen gerra baten beldurrez doalako eta bigarren nobelan, berriz, gerratik ihesi baitoaz. Protagonistak, bi nobeletan, Bordeletik

doaz Ameriketara eta bi liburuetan itsasontzi bera azaltzen da gainera, *Cuba* deiturikoa.

Eta bi liburuen amaiera antzekoa da, sinbolikoki hartuta: Euskal Herritik Ameriketara joan izanak suposatu duen hanka sartzea eta honen deitoratzea, huts horrek berekin ekarri ohi duen desgrazia mordoa azpimarratzen baitu egileak bietan ala bietan ere.

Bi nobelak elkarren osagarri dira eta pertsonaia nagusiak eta hauen jokaerak Jon Andoni-
ren Irazusta egoera pertsonalaren eta une horretan Euskadi pairatzen ari zen sufrikario-
aren sinbolotzat hartu behar dira.

Jon Andoni Irazustaren laguna izan zen Xabier Lizardiren *Asaba zaharren baratza* poema dela-eta, adibidez, inori ez litzaioke burutik pasatuko esatea poema errealista bat dela eta bertan baratzezaintza edo lorezaintzari buruzko tratatu bat eskaintzen digula. Ba, gezurra badirudi ere, antzeko zerbait esan dute kritiko batzuek Irazustaren bi nobela hauen irakurketa arin eta oso azalekoa egin ondoren, daukaten balio sinbolikoa ez aipatuz, eta adieraziz, alegia, bi nobela errealista-kostunbrista direla non mutil euskaldun batzuen Ameriketarako joan-etorria kontatzen zaigun, besterik gabe.



Gaur egungo *Etarte* erabat eroria eta utzia. Euskal Herriaren sinbolotzat hartu zuen J.A.Irazustak *Joañixio* nobela

Iritziak bere obrei buruz

«*Joañixio* euskaraz inoiz idatzi den libururik atsegin, natural eta benetakoena da. Erraztasun, jakinmin eta atsegin handiz irakurtzen da, eta hau bai ezin dela esan euskal liburu askotaz. *Joañixio*-ren estiloa ez da *Garoa*-ren parekoa: arinagoa da, motzagoa eta bizkorragoa baita; biziagoa. Elkarrizketak benetakoak eta zorrotzak dira. Laburtuz, nobela honi ezin zaio benetakotasunik ukatu» (Villasante, *Historia de la Literatura Vasca*).

«Mitxelenak dio Irazustaren *Joañixio* nobela estilo axolagabea dagoela idatzita, eta hau ez zentzu baliagarrian, guk dudarik gabe uste dugun moduan; izan ere, konturatu gabe irensten den liburu moderno baten aurrean

baikaude eta, are gehiago, zein euskara motatan idatzita dagoen jakin gabe irakurtzen da; irakurtzaletasunaz gozatzen dutenak berehalaxe ohartuko dira zertaz ari garen.» (Irigaray, A.: *Historia de la Literatura Vasca*).

«Irazusta idazle zabar samarra da baina nobela-egile ona.» (Michelena, L.: *Historia de la Literatura Vasca*).

«Kritikari batek esaten du Leturia dela lehen *antiheroi*. Kontua ez da horren sinplea. Irazustaren *Joañixio* da aurreneko *antiheroia*. Bide batez hauxe esango nuke. *Joañixio* eta *Bizia garratza* da 1957 arte idatzi diren erromanik onenak direla eta gero ere ez dira asko heldu horien mailara, adierazia eta adierazlea, biok kontutan hartuz gero.» (G. Garate).

Egileak, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- *Xabier Laskibar*
- *Irazusta-Rezola familia*
- *Xabier Lopez-Mendizabal*
- *Juan Garmendia Larrañaga*
- *Antonio M^a Labaien (bere garaian)*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2003ko urria

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

Inprimaketa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

ISBN: 84-457-2021-X (Lan osoarena)
84-457-2022-8

L.G.: S-***-2003